

ERREPUBLIKA ETA AKADEMIA

Platonek filosofoak nahi zituen Errepublikan agintari. Garbi dago ez diogula horretan behintzat kasu handirik egin. Hobe horrela, pentsatuko duzue batek baino gehiagok ezagutzen dituzuen filosofoak gogoan hartuta. Baina ez naiz gure inguruaz bakarrik ari. Mendebaldeko estatu demokratikoen ezaugarria dirudi euren agintarien maila intelektual gero eta eskasagoa. Azkenaldian oso nabarmena da hau Estatu Batuetako George W. Bushen kasua dela-eta. Mundu guztiak daki Estatu Batuetan euren presidentea tontoa dela, motza. Nazio harrotasuna mindua dute eta ez da harritzekoa. Tonto bati botoa ematea ere ez baita adimen zorrotzaren seinale.

Estatu batuarrek behintzat hitzegiten dute Bushen babokeriaz. Espainiarrek ordea ezin dute euren Erregeren adimen maila aipatu ere egin. Eta espainiarrena ez da euren errua. Ez dute Erregea aukeratu eta, gainera, Erret familia osoen ezintasun mentala lege biologikoen kontua da (eta Kanten «printze ilustratua» beraz kontraesan biologikoa). Ezin horren kontra ezer egin, errepublika bultzatzea besterik.

Bataz besteko adimen maila txukuneko agintariak izateko zer egin dezakegu? Hasteko, inbezilei botorik ez eman (gauzak horrela segitzekotan, hala ere, abstentziora kondenatuta amai dezakegu laster). Hautagai izateko unibertsitate tituluren bat izatea jar genezake baldintza gisa, bestela. Egia da badirela betekoak ez diren tituludun ugari, baina neurriren bat hartu beharrean gaude. Alderdi politikoen ez diote hautagaien formazio intelektualari inolako garrantziarik ematen (zer esanik ez bertuteari); sofistak behar dituzte komunikabideen aurrean ongi aritzeko. Baina gure unibertsitate pribatuetan ere doktore tesirik gabekoak Errektore izendatzen dituztenean, zer espero dezakegu? Euskal Errepublikan ez dute filosofoek aginduko baina martxa honetan kanpoan geratuko dira Platonen akademiatik ere.